

Arabako Arte Ederren Museoa Juan Zelaia-aren bildumako hainbat margolan dau-
de ikusgai. Duela astebate za-
baldu zuten “Juan Zelaia. Arte
bildumagilea” izeneko erakus-
keta. Duela urte bitu zendu-
zen oñatiar enpresaburuaren
izena duen fundazioak eta Ara-
bako Foru Aldundiak gordailu-
tze hitzarmen bat sinatu zuten;
haren arabera, artelanen gor-
dailua lau urterako izango da,
baina epe hori luzatu liteke.

Juan Celaya Letamendi Fun-
dazioak neurri batean enpresa-
buru oñatiarraren mezenas la-
nari eman dio jarraipena,
«euskal kultura babestu, susta-
tu eta bultzatzea, zentzu zaba-
lenean, eta soilik adibide mo-
dura, era guztietako jarduerak
antolatu eta finantzatzea, eus-
kara eta euskal kultura, haren
ezagutza, praktika, zabalkun-
dea eta transmisioa» helburu
duela.

Zelaiaren interesa, arteari
dagokionez, XVI. eta XVII.
mendeetako zenbait garaieta-
tik XX. mendeko artelanetara
zabaltzen da, eta askotariko
teknika eta materialak dituz-
ten lanak hartzen ditu bere
baitan. Bere bildumarako iriz-
pidea, berriz, gustua zuen,
merkatu estrategien menpe-
ko izan gabe.

Fundazioaren funtsetik hau-
tatutako 40 obrak Arabako Arte
Ederren Museoko bildumarekin
lotuta daude, XIX. mendeko eta
XX. mendearen lehen erdiko
euskal artea eta garai bereko es-
painiar artea baititu ardatz. Ig-



JUAN ZELAIA, BILDUMAGILE

«Juan Zelaia. Arte bildumagilea», patxadaz ikusteko moduko erakusketa

 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Arabako Arte Ederren Museoa zabalik dago urriaren 13ra arte «Juan Zelaia. Arte bildumagilea» erakusketa. Duela bi urte zendutako enpresaburu eta kultur sustatzaile oñatiarraren izena duen fundazioaren funtsetik hautatutako 40 obra daude ikusgai, gehienak XIX. eta XX. mendeetako euskal egileenak.

nacio Diaz Olano, Eduardo Zamacois, Alberto eta Jose Arrue, Jose Jimenez Aranda, Fernando Amarica, Andres Apellaniz, Mauricio Flores Kaperotxipi, Maximo Juderias Caballero, Valentin Zubiaurre

eta Aurelio Arteta dira lanen egileak, Euskal Herritik kanpoko beste margolari bakan batzuekin batera.

Artetaren “Gerrako tripti-
koa” lan eder eta gordinak za-
baltzen du erakusketa. Muse-

oko bigarren solairura igo eta berehala topatzen du bisita-
riak “Frontea”, “Exodoa” eta
“Atzealdea” koadroek osatuta-
ko obra. Ez dira, beraz, margo-
larien bigarren mailako lanak.
Izan ere, Diaz Olano gasteiztar-
raren obrako lan esangura-
tsuenetako batzuk ere badau-
de ikusgai, adibidez “Biaoa”,
“Gorulariak eta ehuleak” eta
“Lisatzaileak”.

Erakusketa urriaren 13ra ar-
te egongo da zabalik; beraz, ez
dago ikusteko presarik; hori
bai, komenigarria da astia
hartu eta patxadaz ikustea.
Bide batez, lehenengo solai-
ruan hainbat euskal margola-
riren eta beste zenbaiten la-
nak ikusteko aukera ere
badago, tartean goiko erakus-
ketako batzuenak. Areago, be-
heko solairuan Fernando
Amarikaren ondarea ikusgai
dago beti. Begiek eta gogoak
eskertuko dute.



Aurreko orrialdean, Ignacio Diaz Olanoren «Lisatzaileak» mihise gaineko olio. Lerroon gainean, Jose Arrueren «Askaria» paper gaineko gouachea. Eskuinean, Juan Zelaia, 2003an Gipuzkoako Urrezko domina jaso zuenean. Behean, Diaz Olanoren «Biaoa» olio-pintura. Ihana IRIONDO - Andoni CANELLADA | FOKU



JUAN ZELAIA, ENPRESABURU ETA KULTUR SUSTATZAILE

Enpresaburu ezaguna izan zen Juan Zelaia. Ingeniaritza ikasketak egin zituen eta 1959an, bere aita hil berritan, hark sortu zuen Cegasako presidente gisa hasi zen. Tuboplast eta Hidronorren presidente ere izan zen. Oso ezaguna zen Cegasa, eta bertan egiten zituzten Tximist pilak, marketin zuzendariak Espainian pilen izena ez zutela ondo hartzen esan eta aldatu zuten arte, Miel Elustondori “Argia” aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean azaldu zionez. Ardogintzan ere jardun zuen, Lan bodegetan eta Upaingo txakolindegian. Enpresaburu arrakastatsua, bere bizitzako azken txanpan Cegasaren porrota ere ezagutu zuen. 2016ko abuztuaren 10ean hil zen Juan Zelaia Letamendi oñatiarra, gaixotasun luze baten ondoren.

60ko hamarkadan, Deba ibarreko beste hainbat enpresaburuk bezala, Gasteizera eraman zuen bere enpresa. Ikastolen sorreraren garaia zen, eta berak diruz lagundu zituen. Izan ere, oro har euskalgintzarekin, euskal kulturarekin eta kirolarekin harreman estua izan zuen. UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa eta euskararen eta kulturaren aldeko hamaika ekimen eta proiektu babestu zituen. Baita euskal komunikabide ugari ere. Jakina da Noticias taldeko administrazio kontseiluko presidentea zela hil zenean, baina beste proiektu asko ere lagundu zituen, gehienetan anonimatutik: “Egin”, “Euskaldunon Egunkaria”, “Argia”, GARA eta “Berria”, besteak beste.

Tximist espedizioak ere Zelaiaren laguntza

jaso zuen, 1974an ikurrinarekin Everestera abiatu ziren mendizale haiek Cegasa baitzuten babesle. Eta 1980an mendi bereko gailurrera lehen euskal herritar mendizalea eta ikurrina bera eraman zituen espedizioaren babesle ere izan zen.

Euskal kulturgintza bultzatzeko asmo horretan, Euskal Fundazioa sortu zuen beste batzuekin batera, eta ondoren Juan Zelaia Saria beka, hainbat saiakera lan argitaratzea ahalbidetu zuena.

Mecenas moduan ez zen bere burua

nabarmendu zale. Hala ere, hainbat instituzio, erakunde eta elkartek aitortu zioten bere eskuzabaltasuna. Bakan batzuk aipatzearren, 2000. urtean Gasteizko Gobernuak Lan Onari saria eman zion; 2003an Gipuzkoako Foru Aldundiak, Antton Abbadia saria eta Urrezko Domina; urte berean, Araba Euskaraz ikastolen jaiak omendu zuen Oionen; 2008an Durangoko Azokako Argizaiola saria jaso zuen.

Juan Zelaia, enpresaburu eta oroz gain Euskal Herria maite zuen gizona.

